

Ravioliak



auerdi ilunean esnatu naiz, azaldu ezinezko goseak. Zaunka eta uluka ari ziren zakur nabarrak. Negarrez kale gorrian. Arma-izerdia usaintzen zuten.

*Maiatz*eko en bilkuraren erdian esnatu naiz, Itxaro. Amestu dut *poesia mukitsu, leun eta arrosarik ez dugula behar* zioen militante puruaren jardun altzairuzkoa. Burdin hotzeko bozgorailuetatik entzuten nion jarduna, iman musulmanari nola.

Amesgaizto zurbil horretan, Angelen manifestu gordina ibili da eskuz esku. Irakurri ere egin dute lagun batzuek. Halere, zigarro kubatarrak pizteko erabili dute gehienek Erroren proklama. Zeren manifestua, azken finean, literatura baita.

Eta, literaturarekin... nora goaz?

Beruna da, literatura ez dena. Gazteluko harresi gorenetatik jaurtitzen den su gorizko bike urtu hori ez da literatura, ez denez. Eta, gizartea kiskaltzen duen tximista urdin horixe bera da herria aska dezakeen bakarra, akzio legitimo bakarra; akzioa, egoera puruan.

Ez literatura. Ez hitza, berba, elea.

Zer deritzozu zuk, marinel zahar?

* * *

Lemazaina, lemara!

Hegaluzearen kanpainaren atariko, borroka armatua atera dute batzuek atoi-ontziko hozkailutik. Trabes eta traban, itsaslabarretako haitzetan potoraturik eta krokaturik zena, denen bistan da gaur, berriz lerdin.

Gauza jakina da: bertan gordetzen den produktua- ren ohiko transformazio eta garapen naturala moteltzen du hozkailuak. Lizunaren erasotik preserbatzen du hotzak jakia. Bakterioek ez dute haren baitan normalki jokatzeko.

Halere, hozkailuak ez du betiko gazte mantentzen



J. I. Basterretxea

Borda

Erro

haranezko konfitura berdea. Ezta marrubi distiratsua ere. Hozkailu barruan, kraskadura ahultzen zaie Adarraganeko milorriei, hezetasunak hartuta. Ezpeletako piperrak balkoian ontzen dira ondoen, ez izotza- ren zartadaren baitan. Gorbeia- ko gazta, arraildu egiten da, aire errefrigeratuan. Garnatxa- ardo- ak nahiago du txorroko ura, hotz bortitza baino...

Hozkailutik atera du lemazainak gori- gorenena.

* * *

Lo galduan nago hau idazten, lagunak. Auzoko umearen ez tul beteak harrapatu nau gauerdian, eta begiak bildu ezinik nago leiho- an, fruta-arbolei so.

Ekainekoak dira gereziak, gure artean. Orain igo behar da adar gorri- ra, eskua luzatu eta jan. Jan egin behar dira beren garaian gereziak, ez Gabonetan...

Sonanbulu piztuaren gisa nabil etxean, gelaz gela. Tribu lotiarengandik urrun. Galdu- ta sentitzen naiz neure aberrian...

Sukaldean, hozkailua ireki eta segituan itxi dut: usteltzen hasita daude ravioliak. Kiratsa.

Idazteko mahaira itzuli naiz, eta deitu egin diot. Neronek deitu diot. Martiztar herrenari.

– Zer uste huen, ba?

– Nik uste... gutxi. Aldiz, amestu, dezente.

– Atera egin ditek, ba, orduan?

– Atera.

Lokartu ezinik ote nen- bilen galdetu dit. Nola egotea nahi ote duen. Eta, orduan, ordu horietan, Martzialen epigrama zaha- rrak irakurtzeko aholkatu dit hark, sonanbulu aste- roideak. Batez ere, Nevo- loren esklabo gaztearen pasarteak.

Bitartean, absinta itsas- korra, lo-belarra eta biga- rren eskuko munizioa ari dira saltzen Kabulgo azo- kan. Ezta? ■

Hegaluzearen kanpainaren atariko, borroka armatua

atera dute batzuek atoi-ontziko hozkailutik.

Trabes eta traban, itsaslabarretako haitzetan

potoraturik eta krokaturik zena,

denen bistan da gaur,

berriz lerdin